



GRADU AMAIERAKO LANERAKO

ESTILO GIDALIBURUA

(GEOLOGIA)

MEMORIA ONDOKO ESTILO ARAUEN ARABERAKOA IZANGO DA

1. DOKUMENTUA

Azalaren eta gainontzeko orrien tamaina DIN A4koa (210 x 297 mmkoa) izango da. DIN A3 erabili ahal izango da mapak eta irudi grafikoak adierazteko, memorian behar bezala txertatuta agertzen badira.

Dokumentuak honako marjinak izango ditu: Goialdea: 2,5 cm / Behealdean: 2,5 cm / Ezkerraldean 2,5 cm / Eskuinaldean 2,5 cm.

Inprimatzea orriaren bi aldeetatik egingo da.

2. LETRA MOTA

Testuaren gorputza: Ahal bada, EHU/UPVko tipografia propioa erabiliko da, euskarazko lanetan *EHUSerif* eta gaztelerazkoetan (edo beste hizkuntzetan) *EHUSans*. Letra tamaina 10 izango da, justifikatua, parrafo bakoitzeko lehen esaldian 0,5 cm-ko koska, aurreko tarte 0 puntu, ondorengo tarte 6 puntu, eta lerroarte 1,5ekoa. UPV/EHUren berezko tipografia erabiltzen ez bada, Arial Narrow erabiliko da, 11 tamainarekin.

Taula-gainak eta irudi-oinak: Letra mota mantendu egingo da, 9 tamaina, letra etzana, erdigunera lerrokatua, koskatzerik ez, aurreko tarte 3 puntu, ondorengo tarte 6 puntu, eta lerroarte 1,5ekoa.

Bibliografia: Letra mota eta tamaina mantendu egingo da, justifikatua, lehen lerroko koskatzea 0 izango da eta hortik aurrera 0,5 cm, aurreko tarte 0, ondorengo tarte 6 puntu, eta lerroarte 1.

3. GOIBURU ETA OIN-ORRIAK

Goiburuak ezberdinak izango dira orrialde bakoiti eta bikoitietan. Biak orrialdearen goialdetik 1,25 cm-tara hasiko dira, kurtsiba, euskarazko lanetan *EHUSerif* eta gaztelerazkoetan (edo beste hizkuntzetan) *EHUSans*, tamaina 9, letra larriz eta koskatzerik gabe ½ puntuko ertzarekin. Arial Narrow bitartez idatzi ezkerreko tamaina 10 izango da.

Orrialde bikoitietako goiburuak: Ezkerrean lerrokatuta, GEOLOGIAKO GRADUA-HILABETEA-URTEA adieraziko da.

Orrialde bakoitietako goiburuak: Eskuman lerrokatuta, egilearen IZENA eta ABIZENA adierazi beharko da.

Orri-oina: Orriaren beheko aldetik 1,25 cm-tara hasi eta orrialde zenbakia adieraziko da, kurtsiba, euskarazko lanetan *EHUSerif* eta gaztelerazkoetan (edo beste hizkuntzetan) *EHUSans*, tamaina 9, erdigunean lerrokatuta eta goialdean ½ puntuko ertzarekin. Arial Narrow erabili ezkerreko, tamaina 10 izango da.

4. ATALAK

Lehen mailakoak: Zenbakidun zerrenda, letra larri eta lodiz, koskarik gabe, goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib.: **1. SARRERA**).

Bigarren mailakoak: Zenbakidun zerrenda, letra txikiz eta lodiz, koskatzea 0,5 cm, goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib.: **1.1. Teknika Analitikoak**).

Hirugarren mailakoak: Zenbakidun zerrenda, letra txikiz, etzana, koskatzea 0,5 cm, goiko tarte 12 puntu eta behekoa 6 puntu (adib.: *1.1.1. Mikroskopia elektronikoa*).

5. INDIZEA

Orrialde bakar bat gehituko da azalaren ondoren eta bertan adieraziko dira lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako atalak. Erabili beharreko letra mota testuaren gorputzean erabilitakoaren berdina izango da.

6. IRUDIAK

Zenbaki arabiarrek erabiliko dira (adib.: 1. irud. edota 1. irudia).

Maketazioak ahalbidetzen duen neurrian, testuko aipamenetik ahalik eta hurbilen agertu beharko dira.

Irudiaren tamainak 16 cm baino txikiagoa izan beharko du zabaleran (idazteko marjinen barruan). Memoria ulertzeko erreproduzio grafiko handiagoak behar diren kasuan (adib. mapak), honela gehitu daitezke: 1) idazteko marjinen tamaina maximoan etzanda (247 x 155 mm); edo 2) DIN A3 tamainako orrian.

Irudi-oina irudiaren azpiko aldean agertuko da.

7. TAULAK

Zenbaki erromatarrek erabiliko dira (adib.: IV. taula).

Maketazioak ahalbidetzen duen neurrian, testuko aipamenetik ahalik eta hurbilen agertu beharko dira.

Taularen tamainak 16 cm baino txikiagoa izan beharko du zabaleran (idazteko marjinen barruan). Tamaina handiagokoa beharko balitz, bi modu hauetara egin daiteke: 1) idazteko marjinen tamaina maximoan etzanda (247 x 155 mm); edo 2) DIN A3 tamainako orrian.

Taularen goiburua taularen goiko aldean agertuko da.

8. BIBLIOGRAFIA

Bibliografia atala testuan zehar aipatutako lanek bakarrik osatuko dute. Azterketa zehatza eskatzen da aipu bibliografikoak eta haien bilketaren artean, izan ere, aipatutako erreferentzia oro agertu beharko da memoriaren amaierako zerrendan, eta, alderantziz,

bibliografia atalean zerrendatutako erreferentzia oro izan beharko da gutxienez behin aipatua testuan zehar. Erreferentziak, bai testuan bai bibliografiaren atalean, [APA \(American Psychological Association\)](#) estiloa edo beste estilo orokor batzuk ([Uniform-Vancouver](#), [MLA](#), [Chicago](#), [IEEE](#), etab.) oinarri hartuta egingo dira lehentasunez. Estilo horiek [UPV/EHUko liburutegiaren webgunean](#) kontsulta ditzakezue, eta, horrez gain, bibliometriari buruz liburutegi berean eskainitako prestakuntza-ikastaro bat egingo duzue, erreferentzia bibliografikoen kudeatzaile horiek aurkezteko. Laburpen gisa, jarraian APA estiloa azalduko dugu.

Testuan: Testuaren barruan egindako aipuetan egilearen lehen abizena eta argitalpenaren urtea jarri beharko dira komaz banatuta, eta egile desberdinen aipu bat baino gehiago dagoenean, alfabetikoki aipatuko dira (Adib.: Harris, 2024; Hill, 2022; Plank, 2014). Bi egile direnean, bien abizenak aipatuko dira "&" batekin lotuta (Herget & Fontana, 2020). Hiru egile edo gehiago badira, aipua lehen sinatzailearen abizenarekin egingo da eta "et al." formula gehituko zaio ondoren (Adib.: Falkingham et al., 2018; Menichelli et al., 2025; Merritts et al., 2014; Wolff et al., 2020). Egile berak hainbat artikulua baditu, sinatzailearen abizena behin jarriko da eta argitalpen ezberdinen urteak koma batekin bananduko dira (Svensen et al., 2018, 2023). Erreferentzia bibliografiko gisa balioko dute soilik argitaratutako lanek edota argitaratzeko behin betiko onartuta dauden lanek. Liburuak, liburuen kapituluak, doktorego tesiak, kongresuetako laburpenak, etab.

Bibliografia atalean: Erreferentziak lehen egilearen arabera alfabetikoki zerrendatuko dira. 21 egile edo gehiago dituzten aldizkarien erreferentzia, lehenengo 19 egileak idatziko dira, ondoren "..." eta, ondoren, obraren azken egilea. Erreferentzia guztietarako, irakurleak iturria aurkitzeko behar duen informazio guztia ematen du (adibidez, DOI, egileen izenak, lanaren izenburua, argitaletxearen informazioa). Jarraian, erreferentzia bakoitzaren estiloa zehazten da dokumentu motaren arabera, eta zalantzarik izanez gero, [APArekin gida](#) kontsulta dezakezue (edo erabiltzen ari zaretena).

Aldizkariak: Artikuluaren egilea(k) - Abizena, Iniziala. (Argitaratze urtea). Artikuluaren izenburua. Aldizkariaren izena letra etzanean, bol(zk.), or.
<https://doi.org/xx.xxxxxxxx/xxxxxx>

Falkingham, P. L., Bates, K. T., Avanzini, M., Bennett, M., Bordy, E. M., Breithaupt, B. H., Citton, P., Ignacio, D., Jim, O., Fiorillo, A. R., Gatesy, S. M., Hatala, K. G., Hornung, J. J., Hyatt, J. A., Klein, H., Lallensack, J. N., Martin, A. J., Matthews, N. A., Meyer, C. A., ... Belvedere, M. (2018/). A standard protocol for documenting modern and fossil ichnological data. *Palaeontology*, 61, 469–480. <https://doi.org/10.1111/pala.12373>

Svensen, H. H., Jones, M. T., Percival, L. M. E., Grasby, S. E., & Mather, T. A. (2023). Release of mercury during contact metamorphism of shale: Implications for understanding the impacts of large igneous province volcanism. *Earth and Planetary Science Letters*, 619, 118306. <https://doi.org/10.1016/j.epsl.2023.118306>

Wolff, R., Hetzel, R., Dunkl, I., Anczkiewicz, A. A., & Pomella, H. (2020). Fast cooling of normal-fault footwalls: Rapid fault slip or thermal relaxation? *Geology*, 48, 333–337. <https://doi.org/10.1130/G46940.1>

Liburuak: Egilearen abizena, I. (Argitalpen urtea). Liburuaren izena letra etzanean. Argitaletxea.

Merritts, D., Menking, K., & De Wet, A. (2014). *Environmental Geology: An Earth System Science Approach*. W.H. Freeman and Company.

Herget, J., & Fontana, A. (2020/). *Palaeohydrology: Traces, Tracks and Trails of Extreme Events*. Springer. https://doi.org/10.1007/978-90-481-2642-2_388

Liburuen kapituluak: Kapituluaren egilea(k) - Abizena, I. (Argitaratze urtea). Kapituluaren izenburua. In Egilea (k) / Argitaratzailea(k) – I. Abizena (Arg.), Liburuaren izenburua letra etzanean (or. xx-xx). Argitaletxea.

Plank, T. (2014). The Chemical Composition of Subducting Sediments. In H. D. Holland & K. K. Turekian (Arg.), *Treatise on Geochemistry* (or. 607–629). Elsevier. <https://doi.org/10.1016/B978-0-08-095975-7.00319-3>

Svensen, H. H., Planke, S., Neumann, E. R., Aarnes, I., Marsh, J. S., Polteau, S., Harstad, C. H., & Chevallier, L. (2018). Sub-Volcanic Intrusions and the Link to Global Climatic and Environmental Changes. In C. Breitkreuz & S. Rocchi (Arg.), *Physical Geology of Shallow Magmatic Systems* (or. 249–272). Cambridge University Press. https://doi.org/10.1007/11157_2015_10

Tesiak: Tesiaren egilea(k) - Abizena, I. (Lanaren defentsa urtea). Lanaren izenburua. [argitaratu gabeko lan mota] Erakundearen izena (unibertsitatea, fakultatea, etab.).

Harris, B. (2024). White micas in subducted crust: their role in the subduction zone nitrogen cycle and as a tracer of fluid processes [PhD Thesis]. University of Edinburgh.

Hill, S. A. (2022). Functional morphology and taphonomy of Ordovician – Silurian diploporan echinoderms [Gradu Amaierako Lana]. University of South Florida.